



TERMINOLOGIA-LANERAKO IRIZPIDEAK





SARRERA

Terminologia-lana

Terminologia-lana espezializazio-eremuetako kontzeptuak eta horiek izendatzeko erabiltzen diren terminoak aztertzean datza. Terminologia ez da lexikologia eta, hortaz, abiapuntu onomasiologikoa da terminologiarena, hau da kontzeptutik izendapenera doa; lexikologiak, berriz, ikuspuntu semasiologikoari jarraitzen dio eta, horrela, hitzetik, hau da izendapenetik, definiziora doa. Terminologian hiru ikerketa-mota egin daitezke: ikerketa sistematikoa (eremu bat hartu eta modu sistematikoan landu, adibidez Telekomunikazioak; hau lan luzea da); ikerketa tematikoa (azpi-eremu jakin bat lantzea da, adibidez Internet) eta ikerketa-lan puntuala (kontzeptu bat nola izendatu behar den aztertzea, adibidez nola esango zaió “[Posta elektronikoaren bidez zabaldu ohi den gezurrezko birus-abisu asaldagarria](#)”? kontzeptuari; edo izendapen baten atzean zelako nozioa edo kontzeptua dagoen ikertzea, adibidez, [zer esan nahi du ingeleseko “hoax” terminoak?](#)).

Terminologiak maila desberdinak ditu, txosten honen hurrengo puntuan azaltzen den bezala, eta espezializazio-eremuetan aritzen direnak izaten dira askotan terminoak sortu, proposatu eta finkatzen dituztenak. Beraz, gaur egun informazioa oso azkar zabaltzen denez, terminologia-lana egiten dutenek azkar lan egin behar dute, beste hizkuntza batek sortutako termino baterako baliokidea norberaren hizkuntzan proposatzeko. Izan ere, erabilera bat finkatu denean, zaila izaten da erabiltzaileen hizkuntza-joera aldaraztea. Bestalde, ez da ahaztu behar terminoen arrakasta erabileran datzala, hau da, eremuetako erabiltzaileek onartu behar dutela termino baten egokitasuna.

Terminologiaren teoria orokorrak honela definitu izan ohi du “termino ideala”:

- monosemikoa (termino bat → kontzeptu bat)
- unibokoa (terminoa ↔ kontzeptua)
- erreferentzia bakarrekoa
- espezialitate-eremu batekoa
- motibatua (motibazio semantikoa)
- eratorpenerako aukera ematen duena
- konnotaziorik gabea
- laburra eta gardena (izendatzen duen kontzeptua islatu behar du)

Terminoa, zenbat eta espezializazio-maila handiagokoa izan, errazagoa da ezaugarri horiek betetzea; erabilera handiko terminoa denean (elikagaiak, etxebizitza...), berriz, sinonimia agertzea oso normala izaten da eta, gainera, beharrezkotzat jotzen da aberasgarritasun hori gordetzea.

Terminoak onartzea, proposatzea (normalizatzea) eta gomendatzea

Terminologia-lana ez da lan linguistiko hutsa, zeren eta, askotan, hizkuntzaz kanpoko faktoreek erabakitzen baitute termino baten arrakasta edo porrota. Terminologia-lanaren helburua espezializazio-eremuetako adituen/erabiltzaileen arteko komunikazioa ziurtatzea da. Hori horrela, oso beharrezkoa da terminoak aztertzen eta finkatzen dituztenen eskuetan irizpide (ahal dela) garbiak eta zehatzak jartzea, eguneroko lanean modu

sistematikoa aplikatu ditzaten, subjektibotasunari ahalik eta lekurik txikiena utziz. Terminologia Batzordearen ardura da, besteak beste, irizpide horiek lantzea eta finkatzea, eta hori da, hain zuzen, txosten honetan eskaintzen dena. Izan ere, datozen urteotarako euskal terminologiagintzaren erronka honako hauxe da: kalitatezko terminologia produzitzea (Terminologia Batzordeak emandako irizpideak aplikatuta), terminologia hori onestea (terminologia kontsentsuduna) eta azkar, garaiz eta modu egokian hedatzea EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren bidez. Azkenik, Terminologia Batzordeak onetsitako terminologia gomendatu egingo die dagokien eremuko erabiltzaile estrategikoei. Beraz, azken finean ulertu behar da Terminologia Batzordeak ez duela ofizializatuko *sensu stricto*¹ onartutako terminologia, gehiago izango dela proposatzea/gomendatzea, betiere, erabilera gidatzeko eta terminologiaren bateratasuna lortzeko.

Aipatutako guztia gauzatzeko aldera, Terminologia Batzordeak hainbat ponderazio-marka finkatu ditu terminoen gaineko informazioa emateko:

0. Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
1. Termino erabilia (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)
2. Termino proposatua (adituek proposatua baina oraindik T. Batzordeak normalizatu gabea)
3. Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
4. Termino normalizatua/gomendatua

Dena den, kontuan izan behar da irizpideak etengabe aztertu behar direla eta eguneratu behar direla; hortaz, esku artean duzun lan hau ez da itxia, denbora eta lanak aurrera joan ahala berrikusi eta berraztertu behar dena baizik. Ez dago zalantzarik, eguneroko jardunak biziki lagunduko digula lan hori aurrera eramaten.

Azkenik, esan behar da, aipatu bezala, irizpide linguistikoez gain, irizpide terminologikoak eta irizpide soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak ere landu eta finkatu behar direla terminologia-lanean aplikatzeko.

¹ *Dans une perspective d'aménagement linguistique, l'officialisation linguistique peut être définie comme une stratégie d'intervention linguistique par laquelle un organisme mandaté par l'État se prononce officiellement sur des usages linguistiques de manière à contribuer à la maîtrise, au développement et à l'implantation de la langue que l'État veut promouvoir et retenir comme langue officielle.*

L'institution linguistique officielle doit demeurer un point de convergence et de référence pour les locuteurs provenant de différents milieux qui cherchent, pour les problèmes linguistiques difficiles à résoudre ou litigieux, à s'appuyer sur une autorité. (OQLF, Carole Verreault: 2001)

TERMINOLOGIAREN MAILA DESBERDINAK

Jarraian zehaztuko diren terminologia-lanerako irizpideak ezin dira beti berdin aplikatu erabileremu guztietan. Ereku batzuetan, terminologia oso berezitua da, eta eremuko adituek baino ez dute erabiltzen. Baina beste eremu batzuek harreman estua dute hizkuntza arruntarekin, eta, ondorioz, hiztun arruntek maiz erabiltzen dute eremu horietako terminologia.

Hori horrela, irizpideak aplikatzeko orduan, garrantzitsua da erabileremuetako terminologia hainbat mailatan sailkatu eta sail bakoitzak dituen ezaugarri bereziak kontuan hartzea:

1. Zientzia eta teknologietako terminologia.

Objektibotasuna da hizkuntza zientifiko-teknikoaren funtsezko ezaugarrietako bat; zehatza eta objektiboa izatea du helburu. Horrek eragina du sinonimian, hizkuntza arruntan baino estuago jokatuko baita: sinonimoak ez onartzeko joera izango da nagusi, salbuespenak salbuespen.

- *izpi/errainu* eta *marruskadura/igurtzimendu* sinonimoetatik bat hobetsi da erabilera tekniko-zientifikorako; horrela, **Fisikako** testuetan *izpi* (**es** *rayo*, **fr** *rayon*) eta *marruskadura* (**es** *fricción*, **fr** *friction*) erabiliko dira, sistematikoki eta beti, kontzeptu konkretu horiek adierazteko.

Nazioartekotasuna da funtsezko beste ezaugarria. Zientzia eta teknologietan erabili ohi den terminologia oso antzekoa izaten da hizkuntza gehienetan. Hau da, esparru horietako termino askok nazioarteko bermea dute nolabait, eta euskaraz ere arazorik gabe onartzekoak izango dira.

Biologia

eu *biotiko*
es *biótico*
fr *biotique*
en *biotic*

Medikuntza

eu *elektrokardiografo*
es *electrocardiógrafo*
fr *électrocardiographie*
en *electrocardiograph*

2. Euskararen terminologia tradizionala (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza,...)².

Ondoko erdarekin bat ez datorren terminologia da, eta, hein batean, hizkuntzaren altxorra izanik, mantendu eta balioetsi beharko litzateke.

Terminologia tradizional hori gehienetan oso aberatsa denez (euskalki desberdinen erabilera dela eta), nolabait “eskuzabal” jokatu beharko da, aberastasun hori ahal dela mantendu eta behar bezala balioetsi nahi bada.

- Arrantza Hiztegia egitean, hustuketaren bidez lortutako materialean ikusi zen sinonimia oso zabala zela arrantza-teknika tradizionalako elementuak izendatzean. Adibidez, kazako arrantzan erabiltzen diren haga luzeak izendatzeko dozena-erdi sinonimotik gora bildu ziren. Azkenean, erabilera aztertu ondoren, hiztegian lau sinonimo uztea erabaki zen (*sarde*, *ezpeleta*, *botabera*, *pertxa*), terminologia-lanean horrelako kopuru handiak uztea gomendagarria ez den arren. Sinonimia horrek duen balioa aintzat hartu zen horretarako.

Altxor hori babestu nahiak ez du, ordea, gatazkarik sortu behar terminologian funtsezkoak diren hainbat alderdirekin.

- Meteorologia-fenomenoak adierazteko, polisemia eta sinonimia oso ohikoak dira euskaraz. Adibidez, **es** *nube* **fr** *nuage* adierazteko hainbat sinonimo ditu gure hizkuntzak: *hodei*, *laino*, *goibel*, eta abar. Aldi

² Euskaltzaindiak ezer hobesten badu, hura hartuko da.

berean, hitz horietako askotan polisemia gertatzen da; hau da, beste fenomeno batzuk adierazteko erabiltzen dira: *hodei* hitzak hiru fenomeno izenda ditzake (**es** *nube*, **fr** *nuage*; **es** *trueno*, **fr** *tonnerre*; eta **es** *tormenta*, **fr** *orage*).

Beraz, terminoak normalizaziorako proposatzean, kontuan hartu beharko dira eremuko kontzeptu-sistemak, hizkuntzaren aberastasun hori behar bezala kudeatu eta normalizatzeko:

Meteorologia-

eu <i>hodei</i>	eu <i>laino</i>	eu <i>trumoi</i>
es <i>nube</i>	es <i>niebla</i>	es <i>trueno</i>
fr <i>nuage</i>	fr <i>brouillard</i>	fr <i>tonnerre</i>

Bestalde, altxor hori gaurko gizartean dauden kontzeptuak izendatzeko ekar daiteke, analogiaz, berrezarpen lexikala edo zabalkuntza semantikoa eginez:

- *orga* Iparraldeko eta antzinako tradizioan idiei loturiko garraio-mota da. Gaur egun, supermerkatuetan erositako gaiak eramateko erabiltzen den ibilgailua da.

3. Hizkuntza arruntari loturiko terminologia (elikagaiak, jantziak, etxebizitza,...).

Hemen bikoiztasuna izango dugu maiz. Bereizi behar ditugu:

Aspalditik finkatutako euskal hitzak; inolako arazorik gabe txertatuko dira terminologian, irizpide linguistikoek ezarritako baldintzak betetzen dituzten heinean, eta kontzeptuen zehaztasuna mantenduz, betiere.

- *eraikin*, *amurra*, *altzari*, *argindar*, *albaitari*

Berriki geureganatuak dira beste hainbat kontzeptu, ordea, (eta beraz, terminoak ere bai); era masiboan sartzen diren maileguak izango ditugu aurrean. Horrelakoetan, kasu bakoitza arretaz aztertu beharko da, maileguei buruzko irizpideak jarraituz, maileguak onartu edo euskarazko neologismoa proposatzeko.

- *blazer*; *fular/lepoko zapi*; *litera/ohaxka*; *pizza*; *saihestarteko/entrekot*; *hojaldre/hostore*.

Euskararen diglosia-egoeraren ondorioz, zaila izaten da asko erabiltzen diren formak aldatzea, baina, hain zuzen ere, horregatik arreta berezia eskaini beharko zaio arlo honi. Bestela, ekar lezakeen ondorioa hitzunen gaitasuna izugarri pobretzea da, egunero erabiltzen diren hizkuntza-formak direlako eta hizkuntza-paisaian daudelako.

Askotan, euskarazko baliokideak jasotzen ditu Hiztegi Batuak; batzuetan, euskarazko forma hobesten du eta mailegua baztertu.

- *otarrainxka* vs. *langostino** (Hiztegi Batuak otarrainxka besterik ez dakar)
- *dilista*; *ilar xabal* vs. *lenteja** eta *lentilla** (Hiztegi Batua: *lenteja** e. *dilista* 2. e. *dilista*, *ilar xabal*)
- *uraza* (Hiztegi Batua: *letxuga* h. *uraza*)

Euskarazko baliokide horiek maiz asko ez dira ezagunak erabiltzaileentzat, eta, ondorioz, maileguak azaltzen dira, adibidez, jatetxeetako menuetan. Kasu horietan, garrantzitsua izango da termino horiek ongi gizarteratzea eta, horrekin batera, erabiltzeko gomendioa egitea; hizkuntza aberasteaz gainera, ulergarri izango baitira Iparraldeko zein Hegoaldeko euskaldunentzat.

4. Administrazio eta Zuzenbide arloa.

Tratamendu berezia behar du, euskararen kasuan behinik behin, gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko morrontzagatik.

Arlo honetako terminologia estatu bakoitzeko sistema juridiko-politikoari eta hizkuntzari lotuta garatzen da eta partikularitasuna du abiapuntuko ezaugarria eta ez unibertsaltasuna zientzia eta teknologia moduko arloetan gerta litekeen moduan.

Euskararen eremuan gaztelaniaz eta frantsesez garatutako sistema juridiko eta administratibo desberdinak daudenez indarrean, desberdintasun horren isla izango dute euskarazko zuzenbideko eta administrazioko terminoek, maiz termino horietako zenbaitek sistema juridiko bakar batean baitute erreferentzia. Erreferentzia bakarra izateak bestelako arloetan sor ditzakeen zalantza edo eragozpen terminologikoak ez dira jakintza-eremu honetan hain estu hartuko.

Esaterako:

Administrazio-barrutiei dagokienez, ez datoz bat Frantziakoak eta Espainiakoak:

- Ipar Euskal Herrian		Hego Euskal Herrian	
eu	<i>departamendu</i>	eu	<i>autonomia-erkidego</i>
fr	<i>département</i>	es	<i>comunidad autónoma</i>
es	-----	fr	-----

Badira sistema juridiko bati baino ez dagozkion kontzeptuak zuzenbidearen bestelako adarretan ere. Adibidez:

- Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibilekoa den termino honek ez du baliokiderik frantsesez:	
eu	<i>tronkalekotasun</i>
es	<i>troncalidad</i>
fr	-----

Zigor Zuzenbideko beste termino hauek ere erreferentzia bakarrekoak dira:

- Frantziako Zigor Kodeko kontzeptu honek ez du baliokiderik gaztelaniaz:

eu	<i>gaizkileen elkarte</i>
fr	<i>association de malfaiteurs</i>
es	-----

- Espainiako Zigor Kodeko bi kontzeptu hauek ez dute bete-beteko baliokiderik frantsesez:

eu	<i>ebasketa</i>	eu	<i>lapurreta</i>
es	<i>hurto</i>	es	<i>robo</i>
fr	<i>larcin (?)</i>	fr	<i>vol (?)</i>

Horien ondoan, badira, ordea, sistema juridiko biei dagozkien terminoak ere. Erreferentzia bikoitz hori kontuan izango da euskarazko baliokideak ematerakoan. Adibidez:

- Konstituzio Zuzenbidean:

eu	<i>erregelamendu</i>
es	<i>reglamento</i>
fr	<i>règlement</i>

- Administrazio Zuzenbidean:

eu	<i>jabari publiko; herri-jabari</i>
es	<i>dominio público</i>
fr	<i>domaine public</i>

- Lan Zuzenbidean:

eu	<i>ugazaben itxiera; lock-out</i>
es	<i>cierre patronal; lock-out</i>
fr	<i>lock-out</i>

Frantziako eta Espainiako sistema juridikoarekin batera, Europako Erkidegoko Zuzenbidea da euskararen eremuan indarrean dagoen hirugarren sistema juridikoa. Europar Batasuna osatzen duten estatuetako hizkuntza ofizialetan sortu eta garatu den terminologia berri hori euskarara ekartzekoan, kontuan hartuko dira hizkuntza horien erreferentziak:

eu	<i>zuzentarau</i>
-----------	-------------------



es	<i>directiva</i>
da	<i>direktiv</i>
de	<i>Richtlinie</i>
el	<i>οδηγία</i>
en	<i>directive</i>
fi	<i>direktiivejä</i>
fr	<i>directive</i>
it	<i>direttiva</i>
nl	<i>richtlijn</i>
pt	<i>directiva</i>
sv	<i>direktiv</i>
eu	<i>pertsonen joan-etorri aske</i>
es	<i>libre circulación de las personas</i>
da	<i>fri bevægelighed for personer</i>
de	<i>freier Personenverkehr</i>
el	<i>Ελεύθερη κυκλοφορία των ατόμων</i>
en	<i>free movement of persons</i>
fi	<i>henkilöiden vapaa liikkuvuus</i>
fr	<i>libre circulation des personnes</i>
it	<i>libera circolazione delle persone</i>
nl	<i>vrij verkeer van personen</i>
pt	<i>livre circulação de pessoas</i>
sv	<i>fri rörlighet för personer</i>

1. IRIZPIDE LINGUISTIKOAK

Irizpide linguistikoen eremuan, printzipio nagusi bat dago: eremu honetan Euskaltzaindiarena da, betiere, azken hitza. Beraz, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioetan ezarritakoa nahitaez errespetatuko da, eta, era berean, ager litezkeen zalantzak Euskaltzaindiari helaraziko zaizkio.

Printzipio horretatik abiatuta, honako irizpide hauek hartuko dira aintzakotzat:

1.1. Terminoak hizkuntzaren sistema linguistikoaren (morfologikoaren eta fonologikoaren) arabekoak izan beharko dira.³

- *intsektu* vs. *insektu** (sistema fonologikoa)
- *nekazaritza-turismo* vs. *nekazalturismo**; *aberasgarri* vs. *aberetsaile**, *urkor* vs. *urtukor**; *onuragarri* vs. *onurakor**; *ikusgai* vs. *ikuskor** (sistema morfologikoa)

1.2. Hizkuntzaren sisteman integratzeko gaitasuna izan behar dute, bai eta berengandik forma eratorriak eta horien sailak (famiak) sortzeko bidea eman ere.

- Nekazaritzan, landare jakin batzuk azienda elikatzeke eraiten edo lantzen dira, eta helburu hori landare horien izenean bertan azpimarratzen da (**es** *forrajero*, **fr** *fouurrager*). Lehen proposamen gisa, *zuhain* erabili zen: *zuhain-landare*, *zuhain-aza*. Gerora, hura baztertu eta *bazka* hobetsi da, Nekazaritza Hiztegian adibidez, askoz ere malguagoa baita eratorriak eta kontzeptu-sail osoak sortzeko: *bazkatu*, *bazkatze*, *bazkatzaile*, *bazkategi*, eta abar.

1.3. Hizkuntzaren diskurtsoan (sintaxian) integratzeko gaitasuna izan behar dute.

- Matematikan eta informatikan, *osoko zenbaki* (**es** *número entero*, **fr** *nombre entier*) hobetsi da *zenbaki oso* terminoaren aurretik, hizkuntzaren diskurtsoan hobeto funtzionatzen duelako. Izan ere, *zenbaki oso labur* edo *zenbaki oso luze* terminoak nahasgarriak izan daitezke; *osoko zenbaki labur* eta *osoko zenbaki luze*, berriz, argiagoak dira.

1.4. Forma garden-ulergarriak dira hobestekoak.

- *ahoeri* (*medikuntza*) vs. *aheri**

1.5. Hizkuntzaren ohiko erabilera instituzionalarekin bat ez datozen formak baztertu egin behar dira.

- *justizia* vs. *zuzentza** (beraz, *Justizia Jauregia* eta ez *Zuzentza Jauregia*)

1.6. Nahastea sortzen duten forma lehiakideak mugatu eta zehaztu egin behar dira, anbiguotasuna saihesteko.

- *mendilerro* eta *mendikate* terminoak nahasgarri gerta daitezke, baldin eta bakoitzaren mugak ondo zehazten ez badira.
- Komunikabide eta hedabide (azken honek kontzeptu zabalagoa adierazten du, **en** *mass media*)

1.7. Polisemiaren kasuan, ez dute gatazarrik sortu behar hitzen esanahi jatorrarekin.

- *lekutu* aditzak *alde egin* edo *aldendu* esan nahi du. Fisika eta Kimika kuantikoan elektro, orbital edo loturez aritzean erabili izan diren *lekutu* eta *deslekutu* izenondoak (ingeleseko *localize* eta *delocalize* terminoen baliokide moduan) baztertzekoak dira.
- *estimazio* euskaraz ez da kalkulaz edo uste izatea, baizik eta norbait edo zerbait aintzat hartzea.
- *emendakin* eranskin da eta ez zuzenketa.

1.8. Euskalki bateko forma izanik, euskalki horretan duen eta erabili izan den forman onartuko da, nahiz sistematikaz beste forma bat legokiokeen.

³ Hitz elkarketa sintetikoetan marratxoa erabiliko dugu.

- Txarriboda (etnografia) (Bizk.) vs. txerriboda*

1.9. Euskalkien artean hedadura handiena duen forma da hobestekoa eta Iparra eta Hegoa batzen dituen.

- ehiza (kirola) vs. ihizi*
- burdina vs. burni*

1.10. –*dun* atzizkiaz eratutako adjetiboak:

1. -*dun* atzizkiaz eratutako adjektibo bakunak (alegia, hitz bakar batez osatuak, edo hitz-elkarte bakar batez osatuak) izen-sintagman izenaren eskuinean kokatzekoak dira, izenondo moduan. Adibidez:

- ontzi kirtendun, zapata takoidun, mikrouhin-labe grillidun, ur mineral gasdun, aire-girogailu bero-ponpadun.

2. -*dun* atzizkiaz eratutako adjektiboak konplexuak direnean, izen-sintagmaren osaeraren konplexutasuna oro har kontuan harturik, onargarria da, —eta, inoiz, komenigarria ere bai— izenaren ezkerrean kokatzea, salbuespen moduan. Adibidez:

- gomazko takodun golf-oinetako, aluminiozko islagailudun lanpara halogenoa puntuz puntuko kontroldun robot

1.11. Genitiboa eta marraren erabilera dela eta:

1- Osagai bakarra izanda, izen-elkartea hautatu (eta marratxoa). Adibidez:

- "onddo-nahaskia".

2- Osagai bakarra konposatua izanda (izena + izenondoa), eutsi izen-elkarteari (eta marratxoa ez erabili, jakina). Adibidez:

- "baratxuri fresko nahaskia"

Elementu konposatuaren egitura beste bat izango balitz ([izena + izena] hitz-elkartea edo [izenlaguna + izena] sintagma), aztertu egin behar litzateke.

3- Bi osagai izanda eta biak bakunak izanda, eutsi izen-elkarteari eta marratxoei. Adibidez:

- "onddo- eta ganba-nahaskia"

4- Bi osagai izanda eta gutxienez bat konposatua izanda, baztertu izen-elkartea eta hedabide sintagmatikoa erabili (genitiboduna). Adibidez:

- "baratxuri fresko eta ganben nahaskia"

5- Bi osagai baino gehiago izanda, hedabide sintagmatiko genitiboduna erabili daiteke. Adibidez:

- "onddo, ganba eta baratxurien nahaskia"

Baina, osagai konplexurik ez badago, hitz-elkartea ere egokia da (marrafoben alde: bi marratxo baino gehiago agertzea ez litzateke oso estetikoa):

"onddo(-), ganba(-) eta baratxuri-nahaskia"

"pasta(-), gazta(-) eta intxaur(-)entsalada"

1.12. Elkarte sintetikoak ematen direnean, marraz idatziko dira. Eta izen berezien kasuan, bigarren elementua minuskulaz.

- Parte-hartzeen Funtsa
- Kontu-hartzaitzako Azpieskala

2. IRIZPIDE TERMINOLOGIKOAK

Aipatu bezala, terminologia-lana ez da lan linguistiko hutsa eta, hortaz, bestelako irizpideak ere aplikatu behar dira terminoak onartzeko edo normalizatzeko orduan. Hauek dira kontuan hartu beharreko irizpide terminologikoak:

2.1. Espezialitate-eremu bakoitzaren izendapen-sistemak baditu bere arau propioak eta arau horiei begiratu behar zaie eremu batean terminoak onartzeko orduan.

- Kimikan, *hidroxidoak* izendatzeko sistema: *bario hidroxido, zink hidroxido, bismuto hidroxido, berilio hidroxido, kobalto hidroxido, kobre hidroxido, kaltzio hidroxido...*

2.2. Euskaraz erabilitako eta ondo funtzionatu duten ereduen araberrako terminoak onartzekoak dira.

- Biologiako espezie-izenetan izen+izenondo osatutako ereduak erabili izan da: *usapal, katamotz, artatxiki, piperbeltz*. Horrela, eredu horrek bide ematen du termino berriak sortzeko: *piperbeltz berde* sukaldaritzan, esaterako, *piper beltz berde* nahasgarria saihestuz.

2.3. Termino bat dokumentu askotan eta desberdinetan (ikerketa zientifikokoetan nahiz zabalkunde handikoetan) sarritan aurkitu izana bada arrazoia terminoa onartzeko (batasuneko irizpide orokorrekin bat datorren neurrian).

- Hizkuntzalaritza
 - eu** albokari
 - es** lateral
 - fr** latérale
 - en** lateral

2.4. Termino bat normalizatzeko, kontuan izan behar da dagokion kontzeptu-sistema. Terminoak ez dira unitate isolatuak, eta, horregatik, ez du gatazkarik sortu behar eremuko sistemako kontzeptuekiko.

- Geografian, entitate geografikoak izendatzeko bi kontzeptu desberdin bereizi behar dira:
 - "Lurralde lau eta zabala, altuera ez oso handikoa" (**eu** lautada **es** llanada)
 - "Aldaparik gabeko lur-eremua, bereziki haranaren alde behekoa" (**eu** ordoki **es** llano)

2.5. Erlazio unibokoa eratu behar da kontzeptuaren eta izendapenaren artean; hau da, termino bakoitzak kontzeptu konkretu eta bakar bat izendatu behar du, inolako anbiguotasunik sortu gabe.

- Fisikan *energia, indarra* eta *potentzia* bereizi behar dira:
 - *energia*: "sistema batek lana egiteko duen ahalmenaren neurria"
 - *indar*: "gorputz baten forma, higiduraren norabidea edo abiadura alda dezakeen zernahi kausa"
 - *potentzia*: "denbora-unitate jakin batean egiten den lana"
- Geometrian, *norabide* eta *noranzko* zehazki bereizi beharrekoak dira (eta orobat Zirkulazioan).
 - Norabide*: "gorputz batek higitzean egiten duen bide edo lerroa"
 - Noranzko*: "norabide jakin batean higitzeko dauden kontrako bi moduetako bakoitza"

3. IRIZPIDE SOZIOINGUISTIKOAK/PRAGMALINGUISTIKOAK

Oro har, kontuan izan behar dira hizkuntza-komunitatearen egoera soziolinguistikoa eta komunitateko erabiltzaileen jarrera; izan ere, komunitate hori izango da terminoak onartu eta baztertuko dituena. Hona hemen eremu horretako irizpideak:

3.1. Terminoak erabiltzaileen artean ezarpen-maila altua badu, ez da aldatu behar, pisuzko arrazoirik ezean eta termino berriak finkatzeko aukerarik ez balu.

- Futbolean *langeta* eta *korner* erabiltzen dituzte kazetariak, kirol-profesionalek zein zaleek; hortaz, ez luke, teoriarik, zentzu handirik termino horiek aldatzen hasteak.
- greba vs. huelga*

3.2. Termino bat onargarria da, eremuko adituek (inplizituki) ontzat eman eta hobetsi badute, baldin eta pisuzko arrazoirik ez bada haren aurka egiteko.

- Fisika arloan *anplitude* erabili izan da (fr, en: *amplitude*)
- *zigor kode* vs. *kode penal**

3.3. Konnotazio negatiboak dituzten terminoak baztertu egin behar dira.

- Medikuntzan, hainbat gaixotasun izendatzeko leku-izenak erabili izan dira batzuetan, nolabait gaitzaren jatorria edo 'errua' seinalatuz-edo; *nafarrerria*, *frantses-min* eta antzeko terminoak ahal dela saihestu egingo dira, baztanga gisako neutroagoak hobetsiz.
- Ogi-mota jakin bat izendatzeko ikusi ahal izan den *ogi libragarri* terminoak ere ez ditu oso konnotazio atseginak; horrelakoetan ere, termino neutroagoak hobetsiko dira, *osoko ogi*, adibidez.

3.4. Terminoek ikasteko eta erabiltzeko errazak izan behar dute.

- *Administrazio* vs. *arduralaritza**

3.5. Euskararen eremuan hedatuago dagoen forma hobetsiko da.

- Botanikan, *asun* eta *osin* dauzkagu euskaraz landare jakin bat izendatzeko (**lat** *Urtica sp.*). Bien artean *asun* hobetsi da, askoz hedatuagoa dagoelako eta, gainera, Iparraldean eta Hegoaldean erabiltzen delako.

3.6. Erreferentzia-hizkuntzak eta erreferentzia-kulturak bi izanik (espainiera eta frantsesa), erabileremuaren arabera, bi eremu geografikoetan arrakasta izateko moduko terminoak finkatuko dira.

- *auto(mobil)* eta *zirkulazio* vs. *kotxe** eta *trafiko** (Hegoaldean bakarrik erabiliak)

3.7. Erabiltzaileen artean arrakasta izateko aukera gutxi duten terminoak arbuiatu egin behar dira.

- *makillaje* vs. *makilaia**